

Euskal enbaxada zabala gaur Compostelan hasiko den IBBYren batzarrean

'Gutxiengoen indarra' goiburutzat hartuta egingo da haur eta gazte literaturaren nazioarteko 32. biltzarra

Galtzagorri elkarteak ordezkaritza zabal bat bidali du gaur Compostelan hasiko den IBBYren Nazioarteko 32. Biltzarrerara. Erakunde horren helburu nagusia haur eta gazte literatura bultzatzea da, eta euskal idazle, irakasle eta bibliotekari hauek azalduko dira kongresura: Asun Agiriano (Galtzagorriko lehendakaria), Mariasun Landa, Xabier Etxaniz, Mari Jose Olaziregi, Itziar Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide, Xabier Olarra, Ruben Ruiz eta Belen Lucas.

'Gutxiengoen indarra' du izenburu nazioarteko biltzarrak. Bi urtez behin antolatu ohi da horrelako bilkura, eta Galtzagorri elkarteak OEPLI espainiar erakundeak gonbidatuta doa Compostelara.

The International Board on Books for Young People (IBBY) Suitzan sortu zen, 1953an. Galtzagorri da haren euskal adarra, eta berau 90 jaio zen, gaur egun 260 bazkide dituelarik, batzuk idazle ta ilustratzaileak, besteak irakasleak edota bibliotekariak. Lehendakaria, Asun Agiriano, Arrasateko udal bibliotekako arduraduna da.

Bestalde, OEPLIk Cultura Ministerioaren babesarekin Espainiar Estatuko Haur eta Gazte Literaturako autore eta ilustratzaileen erakusketa bat prestatu eta paratuko du bertan kongresuko egunetan zehar. Besteen artean, euskarazko haur eta gazte literaturako 6 idazleren lanak eta 8 ilustratzailearenak ikusi ahal izango dira bertan.

Mariasun Landak, adibidez, moderatzaile lana egingo du gai hau duen mahai-inguruan: 'Neskak: gutxiengo ala gehiengoa?'. Besteak beste, Victoria Fernández espainiarra eta Devika Rangachari indiarra ariko dira horretaz hizketan.

Mari Jose Olaziregi eta Xabier Etxaniz EHUKo irakasleek, berriz, nazioarteko biltzarreko edukien diseinuan lagundu dute.

Gainera, Ruben Ruizek eta Xabier Olarrak IBBYren ohorezko diploma jaso behar dute, bata 'Anekdotak' liburuagatik, besteak 'Hobbit' liburuaren itzulpenagatik. Pamiela eta Igela etxeek eman zituzten argitara lan hauek, hurrenez hurren.

Gaur ez da inaugurazio ekitaldia besterik egingo. Bihar goizean bi hitzaldi nagusi izango dira, goizean, bata Emilia Ferreiro argentinarrarena, gai honetaz: 'La diversidad en el acercamiento a lo escrito: ¿obstáculo o ventaja pedagógica?'; eta, ondoren, Gita Wolf indiarrek gai honi helduko dio: 'Alternative Visions: the Power of Minorities'.

Era honetara azaldu du IBBYk nazioarteko biltzarraren goiburuaren nondik norakoa: "Zer dela eta animatu behar dute gehiengoek gizartea aldatzera, bertan goxo baldin badaude eta pribilegioetan instalatuak? Litekeena da, begiratu batera, gahiengoak gune sozial indartsuenak izatea, baina gutxiengoak dira gizarteak sakonki aldatzen dutenak. Hala izan da historian zehar, eta orain ere horixe gertatzen ari da. Gutxiengoak -bai sozialek eta etnikoek, bai linguistikoek, generokoek eta erlijiosoek- badute barne indar eta bizitasuna, eta horietxek aintzat hartu nahi ditu biltzar honek modu kritikoan".

Orain hurrengoan, nazioarteko biltzarra 2008an egin zen, Kopenhagen. 'Historiak historian-Historian historiak' izan zen goiburua. Eta 2006an Txinako Macaun egin zen, gai hau jorratu zutelarik: 'Haur literatura eta garapen soziala'.